

## Usopasa

*Hondarribia*, 7. zk., 1986-10: 8.

Zein ederra den txoria hegan!

Egun hauetan ari naiz ikusten nire leihotik Iparraldeko nonbaitetik datozen usoak, taldeka. Taldeburua aideko bide ezkutua markatzen dator, itsaso gainean, oso goian... Eta Hondarribia-Endaia gainean hasten da formazioa lurrerantzeko bidea hartzen, Bidasoaren ur-tira edo Tunbiyak edo hemen ibiak egiten duen itsasadarra usoen taldeburuarentzat marka bereziak balira bezala.

Batzutan kurpil oso bat egiten du formazio osoak, desegin gabe, zeruan denek bat eta libre den zerbaitek, patxadan, egin ahal duen moduan, edo bi itzulinguru, eta bere bidea aurkitzeko nahikoa duten seinalez zuzen-zuzen Larrun aldeko norabidea hartzen du usataldeak.

Tiro egiteko goregi!

Batzu geratzen dira inguru honetan ere.

Ez dakite gaixoek, neguari ihesi dihoazen uso hauen zain badirela eskopetalariak, eta gainera, gutxienez XIV. mendeaz gero gizonak asmatuiko beste tranpa bat. Egazti harrapariaren behetik gorako eraso imitatuz, pala xuri batzu botako dizkie behe aldetik, lepoa behetik gora irekitzeko asmotan; hau badaki usoak, eta, orduan, gora ihes egin beharrean oraindik beherago egingo du azpitik ihes egiteko asmoarekin; baina behean, oraindik ulertzen zailagoa zaion gizonaren azken tranpako sareak dauzka Etxalarreko mendi-lepoko pasadizo estuan zain.

Gizonak maliziaz gehiago du usoak baino, lurreko infernu honetan behintzat.

Hala ere, ez dira denak hor, saretan, galduko. Dakitenek diotenez (eta hau Luis de Uranzuk utzi zigun datao dut), San Lukas (urriak 18) eta San Martin (azaroak 11) bitarte labur honetan, 15-20 miloi uso pasatzen da Hondarribia-Endaiko pasaleku honetatik legorrerantz urtero, eta saretan erortzen direnak ez dira 1.500 dozenatik gora izan.

Ez dakigu, bada, Hondarribiko ikuspuntu honetatik, hegohaize goxoa lagun, ikusten ditugun uso, mendiuso, pagauso, usapal edo ttorttoila hauetatik zeintzuk hemen boteak ala bere senean dagoen lur beroetara iristea lortuko duen.

Sareen arriskuaz gainera, uso hauetako batzuk, hegoaren gozoak arrobatuta, Etxalar inguruan geratzen baitira, Senpere eta Sarako oihanetan ezkur gozoa jaten. Eta, noski, saretatik ihes egitea lortu duten usoen zeru hau laster egingo zaio ehiztarien purgatorioa, gizonei beste era batera eta beste deigarriekin askotan suertatzen zaigun bezala, zerua eta purgatorioa ez baitira inoiz oso urrun aurkitzen.

*Maliziaren* aldea bestetik ez dago.

Usapalak, pagausoak eta ttorttoilak ez dutena, eta gizonak, sobera duela, aspaldi erakutsi duena.

Eta hau guztia Jainkoak egina bada ere, nahiago dut usoa hegaz ikusi mahaiean janari gisa baino. Gizona, berriz, nahiago hegaztien hega pausatu ederra, librea, pozez ikustatzen, bere begia, eskuinekoa ala ezkerrekoa, mira-puntan hegaztia duela baino.

Eduardo Txillidari behin baino gehiagotan entzun diotenarekin nago. "Nahiago dut txori bat hegan, ehun eskuetan baino".

Eta bat izan beharrean asko badira, une honetantxe bertan ikusten ari naizen hogetakada, oraindik hobe.